

ULYSSES S. GRANTEN ODISEA




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Hego Karolina (AEB), 1861eko apirilaren 11. Konfederatuak Sumter gotorlekuari eraso zioten eta, hala, AEBetako Sezeshio Gerra hasi zen. Albistea Illinoiseko Galena herrira iritsi zenean, bertako agintariek herrian soldadu konpainia bat osatzea erabaki zuten. Ulysses S. Grant kapitain erretiratua hantxe zegoen eta errekrutatze batzordeko presidente izendatu zuten. Handik hiru urtera herrialdeko armadaren jeneral burua izango zen eta 1869an AEBetako hemezortzigarren presidente izendatuko zuten.

Hiram Ulysses Grant 1822ko apirilaren 27an jaio zen Point Pleasanten (Ohio). West Pointeko akademia militarrean trebatu zen eta Mexikoren aurka gerran jardun zuen. Gatazka amaituta, 1854an, kapitaina erretiratu egin zen.

Bizimodu zibilera ez zen batere ondo egokitu. Missouriiko etxalde batean nekazaritza negozio bat jartzen saiatu zen lehenik; alferrik. West Pointetik igarotakoek ia bermatuta zeukaten ingeniari postu bat lortzen ahalegindu zen hurrena, baina horretarako ere ez omen zuen balio. Esperientzia militarrek lagunduko ziolakoan, zor kobratzaile lanetan hasi zen, eta horretan ere ez zuen luze iraun. Azkenik, aitak Illinoisen zuen larru-enpresaren ardura hartzea erabaki zuen. Negozio hura ere porrotera eraman zuen.



RAAB COLLECTION

AEBetako presidente izan baino lehen, Ulysses S. Grant (1822-1885) alkoholarekin arazoak zituen negozio gizon tamalgarria izan zen.

1861ean Grantek 39 urte zituen, mantendu ezin zituen lau seme-alaba eta, zurrumurruek arabera, porrotek areagotutako alkohol zaletasun larria. Gerra zibilak hondoa jotako militar ohia berpiztu zuen.

Historialari batzuek haren estrategia militarren eraginkortasuna goraiatzeko dute. Beste batzuek diote Granten kanpainen arrakasta erabili ohi zuen indarkeria neurrigabea zetzala.

Gerra amaitutakoan bakea kudeatzea egokitu zitzaion presidente errepublikanoari. Granten curriculum zibil pe-

nagarria ez baitzen nahikoa izan kargu gorenerako bidea oztopatzeko. Eta herrialdearen negozioak bereak bezain gaizki eraman zituen. Bi legegintzaldien balantze ekonomikoa oso kaxkarra izan zen eta, gainera, bere gobernuen organo exekutiboek ustelkeria kargu larriekin egin behar izan zieten aurre.

Haren alde esan beharra dago egungo hautagairen batek ez bezala eskubide zibilen aldeko jarrera izan zuela, bereziki bozkatzeko eskubidearen eta indigenen eskubideen aldekoa. ■



MGM

Neronen buffet birakaria

Egun batez, Erromako enperadore Neronek (K.o. 37-68) oturuntza oparoak eskaintzeko gela birakari bat nahi zuela erabaki zuen. Enkargua Celer eta Severus arkitektoei egin zien eta haiek hamasei metroko diametroa zuen jangela diseinatu eta eraiki zuten Domus Aurean bertan. Erdian lau metroko diametroa zeukan zutabea ipini zuten, sistema

hidrauliko baten bidez zebiltzan lau mekanismo esferiko zituena.

Coenatio rotunda hori enperadorearen nabarmenkeriaren adibideetako bat besterik ez da. Baina gerora jabetxe birakariak bideragarri izango ziren oinarrizko egokitzapen soil bat eginda: janaria birarazita, jabetxe osoa jiratu ordez. ■